

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	02 - JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA
Atala:	0210 - Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusia
Programa:	120 - Azpiegitura berdea
Funtzionala:	172 - Ingurumenaren babesa eta hobekuntza

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sare bat bultzatzea, haren funtzio-aniztasuna eta erresilientzia eta ekosistema-zerbitzuak emateko gaitasuna hobetzeko.

Egoeraren diagnostikoa:

Azpiegitura berdea eremu naturalen, erdinaturalen eta beste ingurumen-elementu batzuen sarea da, modu estrategikoan planifikatua, zerbitzu ekosistemikoen sorta zabala emateko diseinaturia eta kudeatua (Europako Batzordea, 2013). Azpiegitura berdea klima-aldaketa bezalako inpaktuen aurreko erresilientzia hobetzen duten, biodibertsitatea kontserbatzen laguntzen duten eta ekosistemen zerbitzuak mantentzearen eta hobetzearen bidez giza populazioei mesede egiten dieten espazio eta elementuen sare gisa ulertzen da. Zerbitzu ekosistemikoak pertsonak eta gizarteak ekosistemen funtzionamendutik lortzen dituzten onurak dira. Adibidez, ur garbiaren ekoizpena, lurzorua eraketa, basoen aldetik klima arautzea, polinizazioa, biodibertsitatearen kontserbazioa, etab.

Gaur egun, Gipuzkoan, naturagune babestuen sare bat dago, behar bezala finkatuta, eta populazio-dentsitate eta azpiegitura grisen dentsitate handiak eusten dio horiek txertatzen diren lurralde-matrizeari. Hala ere, agerian uzten du, alde batetik, funtzio anitzeko beste espazio horiekin konektatzeko beharra, eta, bestetik, babestutako espazioetatik kanpo kapital naturalaren kudeaketa hobetzeko. Azken batean, eskualdearen azpiko eskaletako iragazkortasun ekologikoa bultzatzen da, eskualdekoa eta tokikoa bezala, eta lurralde osoari zerbitzu ekosistemikoak ematen zaizkio, koherentziaz eta behar bezala.

Gipuzkoako berezitasun fisiko, sozioekonomiko eta lurralde-antolamenduaren jakitun, eta azpiegitura berdearen arloan Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritakoarekin bat etorritik, Departamentuak 2019an Gipuzkoarako Azpiegitura Berdearen Sare bat (GABS) proposatu zuen, eta sare horri lotutako erronka eta aukera nagusiak identifikatu zituen, "Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarearen Plangintzarako Diagnostikoa" dokumentuan jasota geratu zirenak. Dokumentu hori etengabe dago ikusgai Zuzendaritzaren webgunean, bisore baten bidez. Horrela, 104 gune proposatzen dira guztira Funtzionalitate Ekologikorako Intereseko Eremuak, FEIEak, eta gune babestu guztiak elkarren artean lotzen dituen eta Gipuzkoako udalerrri guztietara iristen den sare interkonektatu bat osatzen dute. Era berean, diagnostikoan 32 hobekuntza-eremu identifikatu dira, eta horietan azpiegitura berdearen funtzionaltasuna leheneratu egin behar da.

Ondoren, 4 ekintza-programa zehaztu dira. Programa horiek Zuzendaritzaren jardura antolatzen dute arlo horretan, eta 41 proiektu eta esku-hartze biltzen dituzte diagnostikoan definitutako 32 hobekuntza-arloetatik 23tan. Horiei esker, haien funtzionaltasun eta konektibitate ekologikoa berrezarri ahal izango da. Esku-hartzeek, neurri handi batean, eremu degradatuak lehengoratzeko izaera dute, eta Zuzendaritzaren ohiko eskumena da. Azken urteotan, horrelako jarduerak bultzatzen ari dira, gauzazko dirulaguntzen bidez eta hainbat udalerritan proiektuak zuzenean garatuz, bai eta udalei azpiegitura berdeko tokiko sareak planifikatzen, lurzorua erosten eta funtzionaltasuna eta konektibitatea lehengoratzeko esku-hartzeak garatzen lagunduz ere. Bestalde, Klima Aldaketaren Gipuzkoako Fundazioaren bidez, CO2 Borondatezko Funtsa sortu da. Funts horren bidez, Gipuzkoako enpresek lurraldeko proiektuetarako finantzaketa eman dezakete (mezenasgoa).

Beharrenden deskribapen xehatua:

Gizarteak ingurumen kalitate handiagoko eta natura gehiagoko espazioak eskatzen ditu. Beraz, beharrezkoa da hori behar duten espazioak lehengoratzeko, desfragmentatzeko eta birnaturalizatzea.

Legegintzaldia honetan, jardura-programa horiek eta proiektuen eta esku-hartzeen zorroa bultzatzeaz gain, honako gai garrantzitsu hauek definitu behar dira: (1) sailen arteko lankidetzaren eredu; izan ere, gogoeta- eta eztabaida-feroetan eragile askok adierazi dute eskumenen zatiketa dela GABSren desfragmentazioa lortzeko konpondu beharreko oztopo nagusia eta handiena; (2) kudeaketa- eta finantzaketa-eredua, FEIEak hobetzera eta kontserbatzera bideratua, eta (3) aurrerapenen monitorizazioa, jarraipena eta ebaluazioa, lurraldeko CO2 hustubideen bilakaera barne

Nori zuzendua:

Lurraldeko biztanleria osoa.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitarteko ekonomikoak eta giza baliabideak. Kanpoko kontratazioak.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Azterlanak, planak, monitorizazio-tresnak, proiektuak eta obrak garatzea. Dirulaguntzak. Jardunaldiak, tailerrak, zinema eta dibulgazioko eta hezkuntzako beste jarduera batzuk.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Kalitatezko zerbitzu ekosistemikoak.

Programaren arau esparrua:

Lurralde historikoen legea. Toki-erregimenaren Oinarrien Legea. Administrazio-legeri orokorra. Kontratazio araudia. 9/2021 LEGEA, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa. Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050. Europako Batzordearen "Azpiegitura Berdea: Europako kapital naturala hobetzea" jakinarazpena COM (2013) 249.amaiera. Azpiegitura Berdearen eta Konektibitate eta Leheneratze Ekologikoaren Estrategia Nazionala (PCM/735/2021 Agindua). EAEko Lurralde Antolamendurako Gidalerroak.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabileran aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Azpiegitura berdeko programen eta eremu degradatuak lehengoratzeko programen bidez urtean leheneratutako azalera (ha).	Kopurua	>=	50,50	60,00	70,00	80,00
Mendekotasun energetikoaren %	Ehunekoa	<=	92,85	91,00	89,00	85,00
Lurraldean berriztagarriak sortzea (%)	Ehunekoa	=	7,18	10,00	12,00	20,00
BEGen murrizketaren %	Ehunekoa	<=	36,10	38,00	40,00	45,00
Birziklatze tasa (%)	Ehunekoa	>=	55,00	56,00	57,00	60,00
Energia komunitateen kopurua	Kopurua	=	51,00	60,00	70,00	94,00
Klima-aldaketaren adierazlea: kt co2 eq	Kopurua	<=	5.337,00	5.100,00	4.900,00	4.500,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariora sustatzea.



% 49,19



% 49,19



% 1,63

Ordainketa
kredituak

Datozen
urteetako
gastuak

Sarrera
lotua

Hasiera
data

Bukaera
data

Etorkizuna
eraikiz

Ekintza lerroa, guztira

102.591,80

2025/01/01

2025/12/31

1.1 Ekintza

Gnat Konekta: Pertsonak naturarekin duten konexioa sustatzea

16.283,84

2025/01/01

2025/12/31



1.2 Ekintza

Gnat Zinema: Gipuzkoako Natura eta Ingurumeneko zinema erakustaldia

84.637,00

2025/01/01

2025/12/31

1.3 Ekintza

Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berriak txertatu

1.670,96

2025/01/01

2025/12/31

2. Ekintza lerroa:

Lurraldeak karbonoa xurgatzeko duen ahalmena handitzea.



% 100,00

Ordainketa
kredituak

Datozen
urteetako
gastuak

Sarrera
lotua

Hasiera
data

Bukaera
data

Etorkizuna
eraikiz

Ekintza lerroa, guztira

3.220,96

2025/01/01

2025/12/31

2.1 Ekintza

Gipuzkoako basoetan biltegitratutako karbonoaren monitorizazioa - Karbono-hustubideen kartografia

3.220,96

2025/01/01

2025/12/31

3. Ekintza lerroa:

Espazio degradatuak eta abandonatuak leheneratzea eta berreskuratzea sustatzea.

Ordainketa
kredituak

Datozen
urteetako
gastuak

Sarrera
lotua

Hasiera
data

Bukaera
data

Etorkizuna
eraikiz

Ekintza lerroa, guztira

207.918,00

2025/01/01

2025/12/31

3.1 Ekintza

Eremu degradatuak lehengoratzeko proiektuak eta esku-hartzeak

207.918,00

2025/01/01

2025/12/31

Urteko helburua: Basoen eta bere zerbitzu ekosistemikoen kudeaketa jasangarria garatzea eta natur inguruneak eta biodibertsitatea zaintzea.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gipuzkoako baso masaren CO2 xurgatze ahalmena	Kopurua	=	0,00	100.000,00	300.000,00	0,00
Baso zerbitzu ekosistemikoen balio ekonomikoa (€/ ha/urteko)	Kopurua	=	0,00	30.000,00	100.000,00	0,00
Gipuzkoan kudeatutako baso azalera (ha)	Kopurua	=	0,00	800,00	1.500,00	0,00
Natur ingurunean egindako inbertsioa (€/ urteko)	Kopurua	=	0,00	0,00	300.000,00	0,00
Leheneratutako HA azalera, IV bidez	Kopurua	>=	50,50	55,00	65,00	80,00
CO2-ren hustubide	Kopurua	>=	22,67	24,00	26,00	30,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Natura ondarea babesteko jarduketak bultzatzea.

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	207.918,00			2025/01/01	2025/12/31	
1.1 Ekintza Azpiegitura berdea hobetzeko proiektuak eta esku-hartzeak	207.918,00			2025/01/01	2025/12/31	

Urteko helburua: Azpiegitura nagusiak egokitzea eta modernizatzea eta, behar izanez gero, berriak sustatzea, lurraldearen garapen orekatuaren mesedetan.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Erroldatutako biztanleria, definitutako eskualdeen arabera	Kopurua	=	0,00	0,00	0,00	0,00
Biztanleria landuna, lantokiaren eta zehaztutako eskualdeen arabera	Kopurua	=	0,00	0,00	0,00	0,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Biodibertsitatea eta azpiegitura berdeak babestea, udalerrri, elkarte, unibertsitate eta sektore ezberdinak inplikatur.



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	30.861,24			2025/01/01	2025/12/31	
1.1 Ekintza Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarea bultzatzea	9.390,28			2025/01/01	2025/12/31	
1.2 Ekintza Azpiegitura Berdeko Lurralde Mahaia	21.470,96			2025/01/01	2025/12/31	



GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Osasun zerbitzuak jasotzea

Beharraren deskribapen xehatua:

Programa honek garrantzi txikia du berdintasun-planeko neurriak sartzeari dagokionez. Puntualki, genero analisiak egokiak izan daitezke ingurumen-ebaluazioen alderdi zehatz batzuetan edo azpiegitura berdea lehengoratzeko edo hobetzeko proiektuak diseinatzean edo gauzatzean.



HIZKUNTZA BERDINTASUNEN PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Arreta berezia jarriko da programa honetako plan, proiektu eta ekitaldien komunikazioan bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua bermatzeko, hizkuntzen erabilera komunikazio-ekintza bakoitzaren xede den publikoaren errealitate soziolinguistikora egokituz. Horrek esan nahi du hizkuntzen erabilera aldeztatik planifikatuko dela, gainerako komunikazio alderdiekin batera.

Kategoria	Nola
8.- Herritarrekiko harremanak	Komunikazioak eta materialak euskaraz egingo dira eta arreta berezia jarriko da naturaren elementu eta prozesuen izenak euskaraz ezagutaraztea




GJH


Beharraren deskribapen zehatua:

Programa honen ekintzek 2030 Agendaren helburu eta helburu gehienei lagundu diezaiekete. Zedarritzearen, programa honetako ekintzek egiten dituzten ekarpen zehatzenak 11. zk.ko (HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK) eta 15. zk.ko (LURREKO EKOSISTEMEN BIZITZA) GIHetan koka daitezke, nahiz eta argi eta garbi tributatzen duten 4 zk.an (KALITATEZKO HEZKUNTZA), 13. GJHan (KLIMAREN ALDEKO EKINTZA) eta, zeharka, beste GJH batzuetan.

Kuantifikazioa: 136.674,00 (% 24,74)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	<p>4-Kalitatezko hezkuntza</p> <p>Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.</p>	50.460,42	
Helburua	<p>4.7 - 2030. urterako, ikasle guztiak garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza aberatsak eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, mundu mailako hirigintzaren eta aniztasun kulturalaren eta kulturaren garapenerako hezkuntzaren bitartez.</p>	50.460,42	
Ekintza lerroak			
	<p>Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntarioritza sustatzea.</p>	50.460,42	
	<p>11-Hiri eta komunitate jasangarriak</p> <p>Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.</p>	30.861,24	
Helburua	<p>11.3 - 2030. urterako, Gipuzkoako giza kokalekuen hirigintza inklusibo eta jasangarria eta plangintza eta kudeaketa parte-hartzaileko, integraturako eta jasangarrirako gaitasuna handitzea.</p>	30.861,24	
Ekintza lerroak			
	<p>Biodibertsitatea eta azpiegitura berdeak babestea, udalerrri, elkarte, unibertsitate eta sektore ezberdinak inplikatuz.</p>	30.861,24	
	<p>13-Klimaren aldeko ekintzak</p> <p>Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko (Aintzat hartuta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena klima aldaketari mundu mailan erantzuteko gobernuen arteko eta nazioarteko foroa nagusia dela).</p>	53.681,38	
Helburua	<p>13.1 - Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuekiko erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde guztietan</p>	3.220,96	
Ekintza lerroak			
	<p>Lurraldeak karbonoa xurgatzeko duen ahalmena handitzea.</p>	3.220,96	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Helburua	13.3 - Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza eta erakunde-gaitasuna hobetzea klima aldaketa arintzeko, hartara egokitzeko, ondorioak murrizteko eta alerta goiztiarra izateko.	50.460,42	
Ekintza lerroak			
	Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntarioria sustatzea.	50.460,42	
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna	1.670,96	
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna		
Helburua	- Minorizazio-egoeran dauden hizkuntzak dituzten komunitateak ahalduntzea eta ikusaraztea, identitate desberdinak indartzeko.	1.670,96	
Ekintza lerroak			
	Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntarioria sustatzea.	1.670,96	
Guztira		136.674,00	



PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2024	2025	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2026	2027	2028	2029 eta hurrengoak/ 2029 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL		78.548,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	6.170,00	98.000,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES							
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	6.170,00	176.548,00					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	375.961,44	375.962,00					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	375.961,44	375.962,00					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	382.131,44	552.510,00					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	78.548,00				78.548,00	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	98.000,00				98.000,00	
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	176.548,00				176.548,00	
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	375.962,00				375.962,00	
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	375.962,00				375.962,00	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	552.510,00				552.510,00	